

[Eusk/Cast] Profundizando en la espiral represiva: los muros populares a juicio.

GASTEIZKO HARRESIA (MURO POPULAR DE GASTEIZ) :: 06/10/2016

El ataque contra el harresi de Gasteiz fue el más violento de todos los perpetrados por la Ertzaintza. Las imágenes de aquel día dan testimonio de ello

[Euskara]

Injustiziaren kiribilean sakontzen: harresiak epaituak

2015eko maiatzaren 6an Ertzaintzak operatibo bat jarri zuen martxan zazpi euskal gazte atxilo hartu eta espetxeratzeko. Atxiloketak hastearekin jakin genuen Madrilgo Auzitegi Nazionalaren epaia: Segiko kidea izatea leporatuta, seiná espetxe urte. Auzitegiak aintzat hartu zuen hilabete batzuk lehenago eta espetxeratzeen aurrean elkartasuna antolatzea eragotzi asmoz Ertzaintzak berak zuzenduriko eskaera. Epaia gazteei ezagutzera eman aurretik, euren jakinarazteko eskatzen zuen polizia autonomikoak. Horrela, “prebentiboki” atxilotuko zituzten.

Kondenatuari espetxera borondatez aurkezteko epea da ohiko prozedura, baina zer arraió. Beste salbuespen bat, salbuespena arau den lurralde bitxi honetan.

Hiru gaztek itzuri egin zioten sarekadari, ordea. Euren inguruan fisikoki gorpuztu zen guztiei adierazi nahi genien babesa eta konpromisoa.

Hamar egun bizi, zoro, ezin intentsoago izan ziren. Malkoek, amorruek, elkartasunak, konpromisoak, ia denak egin zigun gainezka.

Baita agendak ere. Euskal Herria laranja tindatu zuen astebeteko auzolan erraldoiaren ostean, maiatzaren 17an, Gasteizen elkartu ginen aurpegia margotuta, kamiseta laranja eta ileorde koloretsuak soinean. Hiriaren plaza nagusia okupatu, eta Askegunea eraiki genuen bertan. Andra Mari Zuriaren enparantza, izan nahi dugunaren lagin txiki bat irudikatu genuen: herri autoantolatua, elkar-laguntza oinarri duena, alaia, umoretsua, bizi-pozez betea. Astelehen goizean Ertzaintza agertu zen. Askegunea harresi bihurtu, eta behartzen gaituzten aldiro izateko prest gaudena erakutsi genuen: herri solidarioa, injustizien aurrean sumintzen dena, errepresioaren jomugan jartzen dituztenak gorputz eta arima babesteko prest dagoena, lege bidegabeak desobeditzen eta konfrontatzen dituen.

Gasteizko herri harresiaren aurkako erasoak Ertzaintzak egindako guztietan bortitzena izan zen. Orduko argazki eta bideo-irudiek lekukotasun argia utzi zuten, eta gerora epaitegietan Ertzaintzaren aurka jarritako 40tik gora salaketak ere argigarriak dira. Momentuko bortizkeriaren ikuspegitik soilik ez, ondorio judizialei begira ere inoizko errepresiboa izan da. Orotara 15 lagun inputatu zituen Barne Sailak. 13 pertsonari, kateatu edo beren buru gainetik pintura bota zutenak, desobedientzia eta erresistentzia hainbat delitu egozten zaizkie. Beste biri, agintaritzaren aurkako atentatua. Hamaseigarren bat inputatzen saiatu zen Ertzaintza gerora, berariaz egindako txosten mardul batean arduraduntzat joz, baina epaitegiak atzera bota zuen.

Orain, epaiketa data batzuk mahai gainean ditugu. Urriaren 10ean Adam eta Oier epaituko dituzte. Abenduaren 13an Izaskun, Jon, Pablo, Xabier, Galder, Asier, Endika eta Iñaki. Guztiak salatzen ditugu bidegabekeria berbera dutelako oinarri; gaurkoan, ordea, lehendabiziko epaiketaren larritasuna nabarmendu nahi dugu.

Agintaritzaren aurkako atentatua eta lesioak leporatzen dizkiete Adam eta Oierri. Ertzaintza erasotu eta lesionatu izana! Azala behar da gero. Ertzaintza akusazio partikular bezala aurkeztu da, eta fiskalak proposatzen dituenak baino zigor handiagoak eskatu ditu, bi urte Oierrentzako eta bi eta erdi Adamentzako. Finean, Barne Sailak eta Eusko Jaurlaritzak espetxean nahiko lituzkete biak. Oierren egoera bereziki delikatu da, zigorra edozein izanik ere espetxeratua izateko arriskuan dagoelako, aurrekariak baititu. Izan ere, harresia egin zenean hilabete eskas zeraman kalean, espetxean urteak egin ondoren. Zer dela eta zegoen harresian? Bada, besteak beste, Igarki babesteko, hiru gazte auzipetuetako bat izateaz gainera, haren lehengusu ere badena.

Datozen epaiketak injustizia, ankerkeria eta surrealismoa dosi nekez altuagoetan nahasten dituen ibilbide luze baten geltokiak dira. 2010eko urrian, 28 gazteren aurkako sarekada egiten du Guardia Zibilak.

Atxilotutakoak torturatu eta espetxeratu egiten dituzte. 2015ean, bost urtera, epaiketa: Auzitegi Nazionalak 21 errugabe eta 7 erruduntzat jotzen ditu. Modu ez bada ilegalean gutxienez alegalean 7 horietako 4 atxilotzea lortzen du Ertzaintzak. Beste hirurak atxilotzeko, ehunka pertsona egurtu, 70 zauritu eta 20 atxilotzen ditu. Hilabete batzuk geroago Gorenak 7 gazte terroristetatik 5 egiaz hain terrorista ez direla, are errugabe direla ebazten du. Beste biei kondena ia laurdenera murrizten die eta, zigorra beteaz dutenez jada, askatu egiten dituzte. Finean, salbuespen epaitegiak onartzen du, esplizituki modu batera eta inplizituki bestera, akusazioek juridikotik ezer eta politikotik dena zutela. Bien bitartean, gazte errugabe horiek -errugabeak baina torturatuak, espetxeratuak eta urtetan herrigintzarako neutralizatuak- babesteagatik, beste 15 herritarrek inputazioak jasotzen dituzte ordainetan. "Dena amaitua" (ja!): gaur errugabe ofizial direnak orduan babesteagatik, beste hainbat lagun epaituko dituzte egunotan. Baina ez Madrileko salbuespen epaitegietan eta Espainiako Gobernuak bultzatuta, baizik eta Gasteizen, Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen poliziak bultzatuta eta espetxealdi luzeko eskariak tartean. Marka da gero.

Gauza asko aldatu dira 2010etik gaurdaino. Beste zenbait, ordea, apenas.

Injustiziaren eta errepresioaren kiribilak etenik ez duela ematen du. Galde diezagutela guri eta auzipetuei, edo Troikaren aurkako protestengatik epaitutakoei, kateatze batengatik mozal legea aplikatu zieten 34 gazte independentistei, etxe-kaleratze baten aurka protestatzeko kaleratuaren etxera hurbiltzea debekatu dieten Kaleratzeak Stopeko kideei, aurreko asteburuan udaltzainek modu zakarrean ordu erdiz atxiki zituzten bi gazteei (beste nonbait herritar batek "bi neska gazte" pankarta bat jartzen ikusi baitzituen, eta haiek "gazteak" eta "neskak" izanik...). Gasteizkoak soilik eta azken hilabetetakoak dira adibide guztiak. Gradu eta ezaugarri ezberdinak, salbuespen logika zigortzaile berbera.

Gure elkartasunak ere ez du etenik. Atzo bezala gaur, legea eta justiziaren artean hautatzera behartzen gaituzten aldiro justiziaren alde egiten saiatuko garela esaten dugu.

Atzo bezala gaur, gu zuek garela eta zuek gu zaretela esaten diegu auzipetuei. Atzo bezala gaur, elkartasuna eta konpromisoa aldarrikatzen eta praktikatzen dugu gure eskubide zibil eta politikoen alde. Urriaren 10ean, goizeko 9etan, Adam eta Oierri elkartasuna eta maitasuna helarazteko kontzentrazioa Gasteizko epategien aurrean.

[Castellano]

Profundizando en la espiral represiva: los muros populares a juicio.

El 6 de mayo del 2015 la Ertzaintza puso en marcha un operativo con la intención de detener y encarcelar a 7 jóvenes vascos. Con el comienzo de las detenciones conocimos la sentencia de la Audiencia Nacional: 6 años de cárcel por pertenencia a Segi. La Audiencia respondía así afirmativamente al requerimiento realizado por la Ertzaintza unos meses antes con la intención de evitar muestras de solidaridad. Solicitaba ser informada de la sentencia antes que los propios jóvenes, para poder detenerlos “preventivamente”. El procedimiento rutinario es la notificación con un plazo para presentarse voluntariamente en prisión, pero qué más da. Una excepción más en este curioso pueblo donde la excepción es norma.

Pero tres jóvenes esquivaron la redada. Materializamos físicamente en torno a ellos la protección y el compromiso que deseábamos mostrar a todos y todas.

Fueron diez días vivísimos, locos, intensos a más no poder. Se nos desbordaron lágrimas, rabias, solidaridades y compromisos. También las agendas. Tras una semana de macro-auzolan que tiñó Euskal Herria de naranja, el 17 de mayo nos reunimos en Gasteiz por miles con nuestros rostros pintados, portando camisetas naranjas y coloridas pelucas. Ocupamos la plaza central de la ciudad, y construimos allí el Askegune, la zona liberada. En la plaza de la Virgen Blanca representamos una pequeña muestra de lo que deseamos ser: pueblo autoorganizado, con la ayuda mutua por base, alegre, desbordante de humor y energía vital. El lunes se presentó la Ertzaintza. El Askegune mutó en muro popular, y demostramos lo que estamos dispuestas a ser cada vez que sea necesario: pueblo terco y solidario, que se indigna ante las injusticias, dispuesto a defender con sus propios cuerpos a quienes sufren represión, que confronta y desobedece leyes injustas.

El ataque contra el harresi de Gasteiz fue el más violento de todos los perpetrados por la Ertzaintza. Las imágenes de aquel día dan testimonio de ello, al igual que la más de 40 denuncias presentadas en los juzgados. Fue también la más represiva desde el punto de vista de las consecuencias judiciales. La Consejería de Interior imputó a 15 personas. A las trece que se encadenaron o se tiraron pintura encima les acusa de desobediencias y resistencias. A las dos restantes, de lesiones y atentado a la autoridad. Posteriormente la Ertzaintza trató de imputar a una dieciseisava tras elaborar un extenso informe donde se le acusaba de “responsable”, pero no fue admitida en el juzgado.

Ahora, tenemos fechas de juicios sobre la mesa. El 10 de octubre juzgarán a Adam y Oier.

El 13 de diciembre a Izaskun, Jon, Pablo, Xabier, Galder, Endika, e Iñaki. Denunciamos ambos porque tienen por base la misma injusticia, pero, hoy, queremos subrayar la gravedad del juicio más cercano.

A Oier y Adam les acusan de lesiones y atentado. ¡Atacar y lesionar a la policía! Hay que tener un rostro de cemento. La Ertzaintza se ha presentado como acusación particular, y solicita mayor castigo que la propia fiscalía. 2 años para Oier, y dos y medio para Adam. En definitiva, la Consejería de Interior y el Gobierno Vasco opinan que deben ser encarcelados. La situación de Oier es especialmente delicada, ya que al tener antecedentes podría entrar en prisión aún con la condena más leve. Y es que Oier acababa de salir de la cárcel tras varios años, apenas un mes en libertad. ¿Por qué estaba allí? Pues, entre otras cosas para proteger a Igarki, que además de ser uno de los tres jóvenes imputados es primo suyo.

Estos juicios son una estación más de un largo recorrido que mezcla injusticia, crueldad y surrealismo en dosis difícilmente igualables. En octubre del 2010 la Guardia Civil ejecuta una redada contra 28 jóvenes independentistas. Las personas detenidas son torturadas y encarceladas. En el 2015, a los cinco años, juicio: La Audiencia Nacional decide que 21 son inocentes y 7 culpables de terrorismo. La Ertzaintza consigue detener en un primer momento a cuatro, sino ilegalmente cuanto menos de manera ilegal. Para detener a los tres restantes apaliza a otras cientos de personas y detiene a 20. Unos meses más tarde el Supremo decide que 5 de esos 7 son inocentes, y que 2 al menos muy terroristas tampoco, ya que les rebaja la condena dos grados de manera que salen en libertad inmediatamente por tener la pena cumplida. Es decir, el tribunal de excepción afirma explícita o implícitamente que las acusaciones tenían nada de jurídicas y todo de políticas. Entre tanto, otras quince personas reciben imputaciones por defender a estos jóvenes inocentes - inocentes pero torturados, encarcelados y neutralizados para la lucha popular a lo largo de años-. “Finalizado todo” (!jai): Por defender entonces a quienes hoy son inocentes, juzgaran próximamente a nuevos imputados. Pero no en Madrid y por iniciativa del Gobierno Español y de sus tribunales de excepción, sino en Gasteiz, promovido por la policía del Gobierno Vasco y con duras peticiones de cárcel de por medio. Qué decir.

Muchas cosas han cambiado desde el 2010. Otras, en cambio, apenas.

La espiral de represión e injusticia parece no tener fin. Que nos lo pregunten a nosotras, o a las personas imputadas por la protestas contra la Troika, a los 34 jóvenes independentistas a los que se multó con la Ley Mordaza por un encadenamiento, a las compañeras de Stop Desahucios a quienes se prohibió acercarse a la casa que iba a ser deshauciada para protestar, a las dos jóvenes que fueron retenidas por la policía municipal de malos modos durante media hora mientras ponían carteles (en algún otro lugar alguien denunció haber visto a dos chicas jóvenes poniendo una pancarta. Y claro, eran dos, eran chicas y eran jóvenes...). Todos estos ejemplos son de Gasteiz y de estos últimos meses. Distintos grados y características, la misma lógica punitiva de excepción.

Nuestra solidaridad tampoco tiene fin. Hoy como ayer, nos reafirmamos en que cada vez que nos obliguen a elegir entre ley y justicia optaremos por esta última. Hoy como ayer, decimos a las personas imputadas que ellas son nosotros, que nosotras somos ellas. Hoy como ayer, continuamos reivindicando y practicando solidaridad y

compromiso en defensa de nuestros derechos civiles y políticos. El 10 de octubre, a las nueve de la mañana, concentración frente a los juzgados de Gasteiz para transmitir apoyo y cariño a Oier y Adam.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-profundizando-en-la>